

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

63/2026 Foru Agindua, martxoaren 4koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan 2026-2027 denboraldian arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautzen duen araudiari

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 10.10 artikuluan azaldu zuenez, "Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du honako gai hauetan: ... 10. Barne-uretako arrantza, itsaski-bilketa eta arrain-hazkuntza, ehiza eta ibai eta aintzi-retako arrantza".

Euskal Autonomia Erkidego osoko erakundeen eta Lurralde Historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.b. artikuluan xedatzen duenez, Lurralde Historikoei dagokie Erakunde erkideen arauak garatzea eta gauzatzea, arlo hauetan: ...3. Ur kontinentalen arrantza eta ehiza aberastasunaren aprobetxamendu araubidea.

Eusko Jaurlaritzaren 34/1985 Dekretuaren eta Arabako Foru Aldundiaren 884/1985 Dekretuaren bidez (biak martxoaren 5ekoak), Arabako Foru Aldundiari eskumena eman zitzaion arrantza kontinentalaren arloa araubidez garatzeko.

Natura Ondare eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, zeina oinarrizkoa baita haren 1. artikuluan eta azken xedapenetatik bigarrenaren arabera, hau ezartzen du 65. artikuluan:

1. Ehizatu eta ur kontinentaletan arrantzatu ahal izango diren espezieak autonomia erkidegoek zehazten dituztenak bakarrik izango dira, eta deklarazio horrek inola ere ezingo die eragin Babes Bereziko Espezieen Zerrendan sartutako espezieei edo Europar Batasunak debekatutakoei.

2. Nolanahi ere, ehiza eta arrantza kontinentalak arautzean, bermatu egingo da jarduera horietarako baimenduta dauden espezieak kontserbatzea eta sustatzea; xede horietarako, autonomia erkidegoek zehaztu egingo dute zein lursail eta uretan ehizatu eta arrantzatu ahal izango den eta zein egunetan izango den haizu espezie bakoitzarentzat.

Arrantza Kontinentalaren Sustapena eta Kontserbazioa arautzen duen 1942ko otsailaren 20ko Legeak eta Ibaietako Arrantzaren 1942ko otsailaren 20ko Legea gauzatzeko arautegia onesten duen 1943ko apirilaren 6ko Dekretuak partez indarrean jarraitzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan.

Lurralde historikoei dagokienez, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 77. artikuluan bigarren apartatuak hau xedatzen du: "Ehizak eta arrantza kontinentalak jarduera horietarako baimendutako espezieen kontserbazioa eta sustapena bermatu beharko dituzte eta, beraz, jarduera horietarako erabil daitezkeen lur eta uretan egin beharko da ehizan edo arrantzan, espezie bakoitzarentzat ezarritako garaietan". Arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautzen duen araudia ezartzen duen urteko Foru Agindua izango da arrain espezieen aprobetxamendua arautzeko arau tresna nagusia.

Foru aginduak, 2026-2027 denboraldian Arabako Lurralde Historikoan arrantzan aritzea arautuko duten alderdi zehatzak ezartzen ditu (arrantzan egiteko ordutegiak eta egun baldiodunak, harrapatu daitezkeen espezieak, arrantzan egiteko eremuak, kupoak etab.). Gainera, erabakia Arrantzaren Lurralde Kontseiluak 2025eko azaroaren 19an egindako bilkuran hartu da. Bertan Lurralde Federazioaren ordezkariak, Arabako kirol arrantzako elkarte gehienen ordezkariak, teknikari adituak eta arlo honetako erabakiaren eraginpeko sektoreen eta interesdunen ordezkariak izan dira. Foru agindu hau presazko prozeduraren bidez izapidetu daiteke, interes publikokoa baita eta legez hurrengo arrantza denboraldia hasi baino aurrerapen nahikoarekin argitaratu behar baita (denboraldia 2026ko martxoaren 14an hasiko da).

Foru agindu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Foru agindua egiteko, kontuan eduki dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) oinarri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren edukia ere. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzan dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapidea egin baita. Edonola ere, onetsi eta berehala ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko arauketak, daukan izaeragatik, ez du eragiten administrazio zama osagarririk eta beharrezkoak ez direnik herritarrentzat, oro har, eta baliabide publiko gehiago kontsumitzea ere ez du eragiten. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokionez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Horiek horrela, aurrekarietan nahikoa justifikatu da premia dagoela Arabako arrantza kontinental beste era batera arautzeko; gainera, arauketa jardun neurritsua izango litzateke, beharrezko gutxienekora mugatzen delako lortu nahi den helburua lortzeko; hain zuzen ere, Arabako Lurralde Historikoan 2026-2027 kanpainarako arrantza arautzen duen araudiaren ikuspegi artikulatua, bakarra, osatua eta eguneratua.

Kontuan hartuta arrantza kontinental kirol jarduera dela eta izaera askotako zale askok egiten duela eta, sarritan, denboraldi bakoitzean ALHAOn argitaratzen den aginduaren testua erabiltzen dutela aplikagarri den araudia ezagutzeko, egokiago irizten da osorik batzea 2025-2026 denboraldian arrantza arautuko duen aginduaren testu osoa, horietako bakoitza bereizita idaztea baino, nahasmenduak eta akatsak sor baititzakete; horrela, errazago irakurri, erabili, ulertu eta interpretatu ahal izango dira, are gehiago, sartutako aldaketak kontuan hartuta.

Kontuan eduki da Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordeak 2026ko otsailaren 27an egindako bilkuran emandako irizpena, eta haren ondorioak onartu dira.

Lurraldeko Arrantza Kontseiluan 2025eko azaroaren 19ko bilkuran adierazitakoa entzunda eta nahitaezko txostenak aztertuta, dauzkadan ahalmenak erabiliz honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.- Onespena ematea 2026-2027 denboraldian Arabako Lurralde Historikoko arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautzen duen araudia ezartzen duen foru aginduari kanpaina berriaren eskakizunetara eta 2025eko azaroaren 19an bildutako Lurraldeko Arrantza Kontseiluak adostutakora egokituz. Testu osoa foru agindu honen eranskinetan ageri dena izango da.

Xedapen indargabetzailea.- Xedapen hau indarrean sartzan denean indarririk gabe geratuko dira beraren aurka doazen maila bereko edo beheagoko mailako xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenengoa.- Foru agindu hau indarrean egongo da Arabako Lurralde Historikoko arrantza kontinentalaren aprobetxamenduaren 2027-2028 denboraldiko araudia ezartzen duen foru agindua indarrean sartu arte.

Azken xedapenetako bigarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 4a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN, 2026/2027 DENBORALDIAN, ARRANTZA KONTINENTALAREN APROBETXAMENDUA ETA KIROL ARRANTZAREN BIDEZ UR KONTINENTALETAKO ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILE JAKINEN KONTROLA ARAUTUKO DITUEN ARAUDIAREN TESTU OSOA.

1. ARTIKULUA.- ARRANTZATU DAITEZKEEN ESPEZIEAK.

1.1 Hauek dira arrantzatu daitezkeen espezieak:

Amuarrain arrunta (*Salmo trutta*).

Barbo arrunta (*Luciobarbus graellsii*).

Loina (*Parachondrostoma miegii*).

Tenka (*Tinca tinca*).

Ezkailua edo txipa (*Phoxinus phoxinus*).

Urre-arraina (*Carassius auratus*).

1.2 Foru Agindu honetako 1.1 eta 2.1 artikuluetan jasota ez dauden espezieak ezingo dira arrantzatu Arabako Lurralde Historikoan.

1.3 Arrantzatu ezin daitezkeen espezie autoktonoren bat ustekabean harrapatzen bada, berehala itzuli behar da uretara, animalia askatzean hari ahalik eta min gutxien eginez.

2. ARTIKULUA.- ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN KUDEAKETA, KONTROLA ETA DEUSEZTATZEA.

2.1 Halaber, exotiko inbaditzaileetat jotzen diren arrain eta krustazeo espezieak kontrolatzeko, kudeatzeko eta desagerrarazteko metodotzat hartzen du arrantza, 630/2013 Errege Dekretuan barne hartuz, 42/2007 legea indarrean sartu aurretik Arabako Lurralde Historikoan sartu zirenak. Bestalde, errege dekretu horri buruzko berriak neurriak ezartzen ditu. Espezie horiek arrantzatzeko Agindu honetan jasotako xedapenak beteko dira (6. artikulua). Espezie horiek ondoren zerrendatzen dira:

Amuarrain ostadarra (*Oncorhynchus mykiss*).

Alburnoa (*Alburnus alburnus*).

Perka amerikarra (*Micropterus salmoides*).

Karpa (*Cyprinus carpio*).

Lutxoa (*Esox lucius*).

Karramarro seinaleduna (*Pacifastacus leniusculus*).

Karramarro gorria (*Procambarus clarkii*).

2.2 Euskal Herrian legez arrantzan egiteko nahitaezko agiriak (foru agindu honetako 9. artikulua) dituen edonork espezie horien gaineko kontrol jardunak egin ahal izango ditu, foru agindu

honetan ezartzen diren denbora eta leku mugetara, prozedura, metodo, beita eta apeuetara moldatuz.

3. ARTIKULUA.- ALDI, EGUN ETA ORDU BALIODUNAK.

3.1 Aldi baimenduak:

Oro har, 2026/2027 denboraldian salmonidoak tarte askeetan harrapatzeko aldi baliouduna 2026ko martxoaren 14tik ekainaren 30era arte izango da, bi egun horiek barne. Salbuespena: Zadorra ibaiko tarte askean salmonidoak martxoaren 14tik uztailearen 31ra arte harrapatu ahal izango dira.

Amuarraina arrantzatzeko barrutietan, arrantzan egin ahal izango da Foru Agindu honen II. eranskinean barruti bakoitzerako zehazten diren egun balioudunetan.

Tarte libreetan ziprinidoak harrapatzeko aldi baimendua 2026ko martxoaren 14an hasi eta 2027/2028 arrantza denboraldiaren hasierara artekoa izango da.

Arrain exotiko inbaditzaileak kontrolatu eta desagerrarazteko ezarri diren tarteetan (Arabako arrantza baimenduko tarteei buruzko I. eranskinean jasoak), aldi baimendua haiekin gainjartzen diren salmonido edo ziprinido arrantzarako tarte berbera izango da.

Seinaledun karramarroa eta karramarro gorria harrapatzeko aldi baimendua, foru agindu honen III. eranskinean haiek kontrolatu eta desagerrarazteko tarteetarako zehazten dena izango da.

3.2 Egun baimenduak:

a) Oro har, eta espezie talde bakoitzaren arrantza denboraldiaren barruan, asteko egun guztietan egin ahal izango da arrantzan. Salbuespenak honako hauek dira: Amuarraina arrantzatzeko barrutietan arrantzan egin ahal izango da foru agindu honen II. eranskinean barruti bakoitzerako zehazten diren egun balioudunetan. Salbuespen gisa, beste arrantza egun batzuk zehaztu ahal izango dira barruti bakoitzerako zehaztutako epearen barruan edo epe horretatik kanpo, arrantza lehiaketa ofizialak egiteko, betiere organo eskudunak aldeztu aurretik baimena ematen badu.

b) Tarte libreetan, salmonidoak eta ziprinidoak arrantzarako aldi baimenduko egun guztietan harrapatu ahal izango dira. Kanabera duten arrantzaileek eta karramarroak sare saskiarekin harrapatzen ari diren pertsonak bat egiten badute karramarroa kontrolatzeko eta desagerrarazteko tarte batean, azken horientzat ezarritako aldi balioudunetan, eta bien artean adostasunik ez badago, karramarroak harrapatzen ari diren pertsonak izango dute lehentasuna. Salbuespena: Durako arrantza esparruan arrantza baimena duten salmonido arrantzaileek edukiko dute lehentasuna.

c) Arrain exotiko inbaditzaileak kontrolatu eta desagerrarazteko ezarri diren tarteetan (foru agindu honen I. eranskina), beraiekin gainjartzen diren salmonidoak edo ziprinidoak arrantzatzeko tarteetan arrantzan egin daitezkeen egun beretan harrapa daitezke espezie horiek.

d) Karramarroa kontrolatu eta desagerrarazteko tarteetan, egun baimenduak foru agindu honen III. eranskinean zehazten direnak izango dira.

3.3 Ordu baimenduak:

Eguzkia irten eta sartu artekoak dira arrantzarako eta karramarroak kontrolatzeko eta ezabatze ordu balioudunak. Eguzkia irten eta sartzen den orduak Institutu Geografiko Nazionalaren egunsenti eta iluntze almanaka ofizialetik hartuko dira, Gasteiz hiriarren kokapena erreferentziatzen hartuta.

<https://cdn.mitma.gob.es/portal-web-drupal/salidapuestasol/2026/Vitoria-2026.txt>

<https://cdn.mitma.gob.es/portal-web-drupal/salidapuestasol/2027/Vitoria-2027.txt>

4. ARTIKULUA.- HARRAPAKETAK ETA KOPURUAK.

4.1 Salmonidoen arrantzarako tarte libreetan, salmonidoak heriotza gabeko modalitatean baino ezingo dira arrantzatu; hortaz, berehala botako dira atzera uretara haietan harrapatzen diren amuarrain arrunt guztiak, askatzean ahalik eta kalte txikiena eginez.

4.2 Ziprinidoak harrapatzeko tarte libreetan, berehala botako dira atzera uretara haietan harrapatzen diren amuarrain arrunt guztiak, askatzean ahalik eta kalte txikiena eginez.

4.3 Oro har amuarrain arrunta (*Salmo trutta*) espezieko hilaraz daitekeen ale kopurua, hori baimenduta dagoen arrantza barrutian, gehienez ere baimen bakoitzeko bi ale izango da. Kopuru horretara iritsitakoan arrantzatzeari utzi beharko zaio. Harrapatutako aleak aukeratzea galarazteko asmoz, legezko luzera duen amuarrain bat harrapatu ondoren ezin izango da berriz uretara bota, egun guztian egiten ari den arrantza modalitate bakarria heriotza gabeko arrantza izan ezean.

4.4 Hilarazitako amuarrain arrunt eta karramarroak saskian, zakuan, poltsan... eraman beharko ditu arrantzaleak, eta ezin izango ditu ibilgailuan sartu arrantza eguna bukatu arte.

4.5 Foru agindu honetako 1.1 eta 2.1 artikuluen arabera arrantzatu daitezkeen gainerako arrain eta karramarro espezieetarako ez da harrapaketa kopururik ezartzen.

5. ARTIKULUA.- NEURRIAK.

5.1 Arrantzatu daitezkeen espezieen gutxieneko neurriak honako hauek dira:

Amuarrain arrunta (*Salmo trutta*): 22 cm

Barbo arrunta (*Luciobarbus graellsii*): 18 cm

Tenka (*Tinca tinca*): 15 cm

Ezkailua edo txipa (*Phoxinus phoxinus*): 6 cm

Loina (*Parachondrostoma miegii*): 8 cm

Urre arraina (*Carassius auratus*): ez da gutxieneko neurririk ezartzen.

5.2 Amuarrain arrunta (*Salmo trutta*) gehienez ere 35 cm luze izan beharko da. Gainerako espezieentzat, ez da ezartzen gehiengo luzerarik.

5.3 Arrainaren luzera furkala hartuko da kontuan, hau da, buruaren aurreko muturretik isats hegatsaren edo isats hedatuaren erdi puntura neurtutako luzera.

5.4 Uretatik atera eta berehala botako dira bertara, ahalik eta kalte txikiena eginez, aurretik ezarritakoak baino luzera txikiagoa edo handiagoa duten arrain guztiak.

5.5 Ez da ezartzen gutxieneko edo gehiengo neurririk 630/2013 Errege Dekretuak barnean hartu eta foru agindu honetako 2.1 artikuluan jasotzen diren espezie exotiko inbaditzaileentzat.

6. ARTIKULUA. ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN ESPAINIAKO KATALOGOA ARAUTZEN DUEN 630/2013 ERREGE DEKRETUAREKIN LOTURIKO BERARIAZKO NEURRIAK.

6.1 2.1 artikuluan adierazten diren espezie exotiko inbaditzaileen kontrola eta deuseztapena, haietako bakoitzarentzat zehaztutako eremuetan bakarrik egingo dira (foru agindu honen I. eranskina). Espezie horietarako ez da ezartzen gutxieneko neurririk ez harrapaketa kopururik, eta

harrapatu eta berehala hilarazi beharko dira. Hala ere, baimentzen da espezie horien ale hilak edukitzea eta garraiatzea, dela autokontsumorako, dela haiek natura ingurunetik desagerrarazteko toki apropos batean uzteko.

6.2 Amuarrain arrantzako esparruetan, espezie exotiko inbaditzaile bateko arrain bat harrapatzen bada, horren berri eman beharko da horretarako gaitutako orrian eta gero akabatu egin beharko da.

6.3 Harrapa daitezkeen ibai karramarroaren espezieak, harrapatu ondoren, ez dira sekula uretara itzuliko. Harrapaketa lekutik alde egin baino lehen hil beharko dira, eta betiere beste edozein zonatar joan aurretik, baita ibai berean bada ere. Harrapatutako aleak uretatik kanpo edukitze hutsarekin ez da ulertuko karramarroak hil direnik.

6.4 Arabako Lurralde Historikoan egiten diren arrantza txapelketa guztietan, kanpoko espezie inbaditzaileen aleak harrapatzen direnean, nahitaezkoa izango da ale horiek hiltzea, txapelketa heriotza gabeko arrantza modalitatekoa bada ere.

7. ARTIKULUA.- ARRANTZA TRESNAK ETA ELEMENTU LAGUNGARRIAK.

7.1 Arrainak harrapatzeko arrantza tresnak:

- a) Kanabera da arrainak harrapatzeko baimendutako arrantza tresna bakarra.
- b) Orokorrean, arrantzarako, lurralde historikoko ibai eta uretan kanabera bakar bat onartzen da arrantzan ari den arrantzale bakoitzeko.
- c) Albina, Maroño, Sobron, Urizarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan, baita ziprinidoen arrantzarako tarte libreetan ere, arrantzale bakoitzak hiru kanabera erabil ditzake, eta denak eduki beharko ditu eskueran.

7.2 Seinaledun karramarroak eta karramarro gorriak harrapatzeko tresnak:

- a) Espezie horiek harrapatzeko arrantza tresna bakarra dago baimenduta: sare saskia, gehienez ere 35 zentimetroko diametrokoa eta bi eraztuneko, eta ixteko gailurik ez daukana.
- b) Gehienez ere zortzi sare saski baimentzen dira arrantzale bakoitzeko. Sare saskiak ipintzeko, goitik jota ibaiertzaren 30 metro har daitezke beste arrantzale batzuk hurbil egon eta beren artean adostasunik ez badago sare saskiak tartekatzeko.
- c) Sare saskiak behar bezala identifikatuta egon behar dira, arrantzalearen izen-abizenekin.
- d) Agintari eskudunak konfiskatu egingo ditu identifikaziorik gabeko sare saskiak.

7.3 Elementu osagarriak.

Orokorrean, salabardoa esaten zaion tresna erabili ahal izango da, baina bakar-bakarrik kanaberekin harrapatutako arrainak uretatik ateratzeko lagungarri moduan.

8. ARTIKULUA.- BEITAK ETA AMUAK.

8.1 Arabako Lurralde Historikoan amuarrainaren arrantzarako barrutietan, berdin du zein motatako arrantza egiten ari den, eta salmonidoen arrantzarako tarte libreetan, onartutako amu bakarrak heriotza gabeko beita artifizialak dira, edozein mota edo muntaiatakoak, baldin eta amu bakarra badago eta ez badauka "garrangarik". Arrantzan ezin erabili izango da amu garrangadunik, ez eta amu ugari ere.

8.2 Seinaledun karramarroak eta karramarro gorriak harrapatzeko, amu hilak soilik erabiliko dira (eta inoiz ez deskonposizioan daudenak), eta debekatuta dago horien hondarrak natura ingurunean uztea. Arrantzaldia amaitutakoan hondar horiek edukiontzietan utzi beharko dira edo erabili dituenaren etxera eramán, bertan ezabatzeko.

8.3 Oro har, debekatzen da:

- a) Arrain bizi edo hilak beita natural gisa erabiltzea.
- b) 630/2013 Errege Dekretuaren eraginpean dagoen kanpoko edozein espezie inbaditzaile beita moduan erabiltzea.
- c) Beita natural gisa tokian tokiko faunakoak diren intsektu edo beste ornogabeen arrautzak, larbak, pupak, ninfak edo imagoak erabiltzea.
- d) “Asticot” deritzon harra eta antzekoak beita natural moduan erabiltzea, bai eta osagai erakargarriak, usaindunak eta zaporedunak dauzkaten beita guztiak ere. Era berean, debekatuta dago gazta, haragi eta antzekoen masa nahasiak erabiltzea amu gisa, bai eta urak beitatzea ere arrantzan hasi baino lehen edo arrantzaleak jardunean dirauen bitartean.
- e) Harian lastadun ninfak erabiltzea beita moduan.

8.4 Salbuespenak:

a) Albina, Maroño, Sobron, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan baimena ematen da arrain hilak eta “asticot” deritzon harra erabiltzeko beita natural gisa. Nolanahi ere, muga hauek jartzen dira arrain hilak erabiltzeko, baldin eta ur gezetako espezieetako arrainak badira:

a.1. Foru agindu honen 1.1 artikuluan adierazitako harrapatu daitezkeen espezien zerrendako arrain espezieak izatea.

a.2. Haien neurria foru agindu honetako 5. artikuluan ezarritako gutxieneko neurriaren berdina edo handiagoa izatea.

b) Karramarroa kontrolatu eta desagerrarazteko tarteetan, baimenduta dago arrain hilak beita natural moduan erabiltzea, aurreko apartatuan ezarritako muga berberekin.

c) Sobron, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan eta “ziprinidoen kirol agertoki” deklaraturako eremuetan, baimentzen da urak beitatzea gazta, haragi eta antzekoen masa nahasiekin, baina arrantzan aritu bitartean bakarrik, eta betiere uretako fauna eta landarediarentzat edo gizakientzat toxikoak ez diren produktuak erabiliz gero.

d) “Ziprinidoen kirol agertoki” deklaraturako uretan, baimentzen da beita natural moduan “asticot” deritzon harra edo antzekoak erabiltzea arrantza sustatzeko edo arrantzan egiten irakasteko jarduera ofizialak egitean.

9. ARTIKULUA.- ARRANTZAN EGITEKO BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK.

9.1 Eusko Jaurlaritzaren Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren urriaren 7ko 216/1997 Dekretuari jarraituz (EHAA, 203 zenbakia, 1997ko urriaren 23koa), hauexek dira Euskal Autonomia Erkidegoan ibai arrantza egiteko beharrezko agiriak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoaren arrantzarako lizentzia.
- b) Urteko tasa ordaindu delako ziurtagiria.

c) Nortasun agiri nazionala (NANA), pasaporte, gidabaimena edo atzerritarren identifikazio zenbakia (AIZ).

Ibai arrantzako lizentzia eta beraren ordainagiria paperean erabili ahal izango dira edo zorro digital batean. Titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoko ibietan egin dezake arrantzan.

9.2 Foru agindu honen 9.1 artikuluan adierazitako agiriez gain, barrutiko arrantza baimena eduki behar da, mugaturiko tarteetan amuarrainak arrantzatzeko, bai eta urteko tasa ordaindu izanaren agiria ere. Baimen hori pertsonala eta besterenezina da. Baimen horren indarraldia data jakin baterako eta amuarrain barruti jakin baterako baino ez da izango.

9.3 Salmonidoen arrantza ikasten laguntzeko, amuarrain barrutietako baimenen titularrak 16 urteik beherako beste pertsona batekin egon ahal izango dira. Horrek titularraren baimena aprobetxatuz arrantzatu ahal izango du, betiere 9.1 artikuluan adierazitako dokumentazioa badu, eta baimen bakoitzeko kanabera bakarria erabiliz.

10. ARTIKULUA.- ARRAIN FAUNA BABESTEIA.

10.1 Arauzko tamainatik beherako edo gorako amuarrain arrunta harrapatzen denean (22 cm baino gutxiago edo 35 cm baino gehiago), eta ezin bazaio amua kendu kalte handia egin gabe, arrantza haria moztu eta askatu egingo da.

10.2 Amuarrainei harrapatzean ahalik kalterik gutxien egiteko, amua kentzeko tresnaren bat erabiltzea gomendatzen da; gainera, ateragailua nahitaez erabili behar da, ahal dela gomazkoa, arrainei kalte gutxien egiten dietenak dira eta.

10.3 Honako debeku hauek ezartzen dira:

- a) Uretan arrabalekuetan sartzea apirilaren 30era arte, berori barne.
- b) Edozein baliabide erabilita harriz, egurrez edo beste material batez egindako oztupoak edo hesiak jartzea, edo ubideak edo ur etorriak aldaraztea, arrantza errazteko ala ez errazteko.
- c) Elektrokutatze edo geldiarazteko tresnak, argi iturri artifizialak, lehergailuak eta gai pozoitsuak, lasaigarriak, erakargarriak edo uxagarriak erabiltzea.
- d) Atzaparrak, kizkiak, hiruhortzak, krakoak, atxamartak, arpoiak, xederak, baheak, pertolak, otarreak, txingak, sareak, esku-sareak, tretzak, salabardoak, zurdak, itsatsitako amu hariak eta antzeko tresnak erabiltzea.
- e) Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ontzizat hartzen ez dituen flotazio aparatuak arrantzarako erabiltzea.
- f) Arrainak eskuz harrapatzea eta arrainen babesleku diren harriak jotzea.
- g) Su armez, aire konprimituz edo beste gas batzuek dabilzan armez, uztaiz, baleztaz edo antzeko beste tresna batzuek arrantzan egitea.

11. ARTIKULUA.- AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUAK.

Arabako Lurralde Historikoan 2026/2027 denboraldirako ezartzen diren amuarrainak arrantzatzeko barrutiak, foru agindu honen II. eranskinean adierazitakoak dira.

12. ARTIKULUA.- KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DESAGERRARAZTEKO TARTEAK.

Arabako Lurralde Historikoan 2026/2027 denboraldian karamarroak kontrolatu eta desagerrarazteko ezartzen diren tarteak, foru agindu honen III. eranskinetan adierazitakoak dira.

13. ARTIKULUA.- KIROL AGERTOKIAK

13.1 Definizioa eta motak.

Honako kirol agertoki hauek ezartzen dira, arrantzari lotutako kirol lehiaketa ofizialak egiteko eta arrantza sustatzeko eta irakasteko:

a) Salmonidoen kirol agertokia. Omecillo ibaian, Gaubeako udalerriko tartean. Guztira 13,6 km-ko luzera du, eta honako muga hauek dituzten bi tarte ditu:

I. tartea:

- Goiko muga: Gurendes herriaren kanpoaldeko zubia (koordinatuak: ETRS89 30N 489938/4743799).
- Beheko muga: ibaian gora, Espejoko igerileku naturalak dauden zelaigunean, dagoen bihurtune (koordinatuak: ETRS89 30N 495757/4739924).

Luzera: 10,9 km.

II. tartea:

- Goiko muga: A-4327 errepedeko zubia (koordinatuak: ETRS89 30N 495908/4739678).
- Beheko muga: A-2625 errepedeko zubia, Espejoko araztegia baino beherago (koordinatuak: ETRS89 30N 496593/4738112).

Luzera: 2,7 km.

b) Ziprinidoen kirol agertokia. Zadorra ibaian, Iruña Oka udalerriko tartean. 1,7 km-ko luzera du, eta honako muga hauek ditu:

- Goiko muga "Los Cañales" izeneko oinezkoen pasabidearen aztarnak (koordinatuak: ETRS89 30N 516010/4740064).
- Beheko muga Sorribasko presa (koordinatuak: ETRS89 30N 515289/4739177)

13.2 Agertokiak aldatzea.

Foru aginduen bidez beste kirol agertoki batzuk ezarri ahal izango dira, bai eta oraingoan mugak aldatu edo lekuz aldatu ere.

13.3 Baimenaren izaera eta irismena.

13.1 apartatuan adierazitako jarduerak kirol agertokietan garatzeko, agertokia erabiltzeko alde aurreko administrazio baimena beharko da. Baimen horrek soil-soilik gaituko du tartea lehentasunez okupatzeko/erabiltzeko eta bertan arrantzan jarduteko, foru agindu honetan eta baimenean bertan ezarritako moduan eta baldintzetan.

Baimen horrek ez ditu ordeztzen edo aurrez juzgatzen eska daitezkeen bestelako gaikuntza baimen edo titulu batzuk, eta, bereziki, ez du xedetzat lehiaketaren kirol kalifikazioa edo baimena, dagokion araudi sektorialak arautuko baitu.

13.4 Organo eskuduna.

Ehiza eta Arrantza Atalak bideratuko du baimena, eta Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuaren buruak ebatziko du, egon litezkeen eskuordetzeen araubidea alde batera utzi gabe.

13.5 Aurretiazko baldintzak eta dokumentazioa. Urteko Funtzionamendu Plana.

1. Erakunde antolatzaileak, lehenengo jarduera baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago, eskaera bat aurkeztu beharko du, Urteko Funtzionamendu Plan batekin batera. Plan horrek jarduera bat edo batzuk jaso ahal izango ditu.

2. Urteko planak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

- a) Erakunde antolatzailearen, arduradunaren eta harremanetarako bitartekoen identifikazioa.
 - b) Jardueren/ekitaldien zerrenda zehatza, datak, ordutegiak, eraginpeko tartekak eta iraupena adierazita.
 - c) Jarduera bakoitzerako: partaideen gehieneko kopurua, arrantza modalitatea, harrapaketarako eta manipulatzeko arauak (hala badagokio, harrapaketa eta askatzea barne), eta partaideak kontrolatzeko sistema.
 - d) Jendaurreko seinaleztapen eta informazio neurriak (okupazio osoa edo partziala, sarbideak eta mugak).
 - e) Segurtasun eta antolaketa neurriak, eta, hala badagokio, erantzukizun zibileko aseguruaren egiaztagiria.
 - f) Espezie exotiko inbaditzaileen sakabanaketaren biosegurtasun eta prebentzio neurriak, foru agindu honen 22.2 artikuluan aurreikusitako neurriak berariaz aipatuta. g) Hala badagokio, AFAko basozaintza/zerbitzuekin aurreikusitako koordinazioa eta gorabeheren aurrean jarduteko protokoloa.
3. Kirol lehiaketa ofizialak. Jarduera “kirol lehiaketa ofizialtzat” hartzen denean, eskaerarekin batera aplikatu beharreko kirol araudiaren arabera eskumena duen organoaren egiaztagia aurkeztu behar da, lehiaketa horrek baimen/kalifikazio ofiziala dela adierazten duena.

13.6 Izapidetzea eta zuzentzea.

Eskaera jaso ondoren, Mendi Zerbitzuak aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko edo hobetzeko eskatu ahal izango du, administrazio prozedura erkideari jarraituz. Era berean, txosten tekniko gehigarriak eskatu ahal izango ditu, jarduera arrain populazioen eta ibai ekosistemaren kontserbazioarekin eta egoera onarekin bateragarria dela bermatzeko.

13.7 Baimena emateko irizpideak. Araututako ahala.

Baimena arautua izango da. Bestalde, baimena emango da, plana eta, hala badagokio, ematen diren txostenak ikusita, honako irizpide hauek betetzen direnean:

- a) Jarduera bateragarria izatea espezieen eta habitaten kontserbazioarekin eta denboraldiko arrantza antolamenduaren helburuekin.

b) Arrantza modalitatea eta proposatutako baldintzak foru aginduko araudi orokorrera eta tartearen babes neurri espezifikoetara egokitzea.

c) Proposatutako egutegia egokitzea, aldi sentikorretan eragin nabarmenik ez izateko eta bateraezinak diren beste jarduera baimendu batzuekin gainjartzea saihesteko.

d) Behar beste biosegurtasuneko neurri bermatzea, bereziki zebra muskuiluaren eta beste espezie exotiko inbaditzaile batzuen aurka.

e) Behar beste antolaketa, seinaleztapen eta kontrol neurri egotea, ekitaldia egiten den bitartean erabiltzeko erreserba benetan betetzen dela ziurtatzeko.

f) Hala badagokio, 13.5.3 apartatuan kirol lehiaketa ofizialetarako aipatzen den egiaztatzea.

Baimena ukatu egin ahal izango da, arrazoiak emanez, baldin eta aurreko irizpideak betetzen ez badira edo, baliabidearen kontserbazio, segurtasun edo kudeaketa arrazoi justifikatuak direla-eta, denboraldiko arrantza antolamendurekin bateraezina bada.

13.8 Ebazteko epea eta administrazio isiltasuna.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa (1) izango da, eskaera osorik aurkezten denetik aurrera. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

13.9 Gauzatzeko baldintzak, publikitatea eta urteko txostena.

1. Kirol agertokiak jarduera baimenduak egiteko okupatuta (osorik edo zati bat) egongo diren egunak argitara emango ditu erakunde antolatzaileak eta Arabako Foru Aldundiak, atari ofizialean.

2. Baimendutako jarduerak egiten diren egunetan, partaideek baino ezin izango dute arrantzan egin kirol agertokian. Gainerako guztiek debekatuta edukiko dute arrantzan egitea.

3. Planean jasotako jarduerak amaitu eta gehienez ere bi (2) hilabeteko epean, erakunde antolatzaileak funtzionamenduari buruzko urteko txosten bat bidali beharko du, gutxienez honako hauek jasoko dituen: egindako jarduerak (datak eta parte-hartzea), gorabeherak, biosegurtasun neurrien batetze maila eta azken balorazioa. Txosten hori aurkezten ez duen erakundeak ezin izango ditu kirol agertokiak erabili hurrengo urtean.

13.10 Erregimena baimendutako datetatik kanpo.

Baimendutako jarduerarik ez dagoen egunetan arrantza debekatuta egongo da salmonidoen kirol agertokian; aldiz, ziprinidoen kirol agertokian nornahik egin ahal izango du arrantzan egun horietan, araudi orokorrean ezartzen dena betez gero.

13.11 Harrapaketak sustapen edo irakaskuntza jarduerak egiten diren bitartean.

Arrantza sustatzeko eta arrantzan egiten irakasteko jarduerak egin bitartean harrapatzen diren ale guztiak, salbu eta 630/2013 Errege Dekretuaren eraginpean dauden kanpoko espezie inbaditzaileenak, uretara itzuli beharko dira harrapatu eta berehala edo, ziprinikoen agertokian sare antzekoren bat edo bibak ontziren bat erabiliz gero, arrantza eguna bukatutakoan.

13.12. Biosegurtasuna

13.1 apartatuan zehazten diren jarduerak egitean, bete egin beharko dira ur masen artean zebra muskuiluen (Dreissena polymorpha) larbak transmititzea saihesteko eta eragozteko prebentzio mugak, foru agindu honen 22.2 artikuluan adierazten direnak.

14. ARTIKULUA.- DEBEKATUTAKO TARTEAK

14.1 Arrantza debekatuta dago foru agindu honen I. eranskinean arrantzako tarte deklaratu ez diren ur masa guztietan, bai eta salmonidoen kirol agertokian ere, baimendutako jardueren egutegitik kanpo. Debeekatutako tarteak AFaren webgunean ikus daitezke: <https://geo.araba.eus/geobisorea/>).

14.2 Debeekatuta dago arrantzan egitea sarbide publikoa debekatuta duten lekuetatik.

14.3 Berriazko baimenik izan ezean, debekaturik dago arrantza egitea ureztatzeko urmael eta ubideetan, bai eta zentral elektrikoetako eta errotetako ubideetan ere, eta, oro har, edozein deribazio ubidetan, iraunkorrek izan zein aldi baterako izan.

14.4 Bide segurtasunagatik, debekatuta dago kanaberaz arrantzan egitea Ollerietatik Elosurako A-4404 toki errepidean, Urrunagako urtegiaren gainetik pasatzen den zubiaren bi kareletan.

15. ARTIKULUA.- MERKATURATZEA.

Debeekatuta dago amuarrain arruntak merkaturatzea, lurralde historiko honetako uretan egindako arrantzatik lortuak badira.

16. ARTIKULUA.- AMUARRAIN BARRUTIETAN ARRANTZATZEKO BAIMENAK

16.1 Eskaerak: 2027ko denboraldirako amuarraina arrantzatzeko baimenak Arabako Foru Aldundian eskatuko dira, Ehiza eta Arrantza Atalaren bulego teknikoetan (Probintzia plaza 5, beheko solairua), edo AFaren egoitza elektronikoaren bidez, horretarako formalizatutako inprimakian eta nahitaezko dokumentazioarekin batera. Eskaerak aurkezteko epealdia 2026ko abendu osoa izango da.

16.2 Zozketa. Amuarrainak arrantzatzeko baimenen zozketa Arabako Foru Aldundian egingo da. Eguna eta ordua eskaera orrian adieraziko dira.

16.3 Prezioa. Amuarrainak arrantzatzeko 2027ko baimenen prezioak Arabako Lurralde Historikoaren urte horretako aurrekontua gauzatzeko araudian ezarritakoak izango dira.

16.4 Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik arrantzan ezin egin daitekeenean baino ez da egongo eskubidea baimenengatik ordaindutakoa berreskuratzeko.

16.5 Amuarrain barrutietako baimen bakar baten titular baino ezin izango da izan eguneko.

16.6 Amuarrainak arrantzatu eta hiltzeko barrutietarako baimena lortzen duena heriotza gabeko arrantzan aritu ahal izango da barruti horretan, hori baldin bada jardunaldi osoan egiten duen arrantza modalitate bakarra.

17. ARTIKULUA.- AMUARRAIN BARRUTIETAKO BAIMENAK ZOZKETA BIDEZ BANATZEA.

17.1 Arrantzaleek eskaera bana aurkeztu ahal izango dute bakarrik; gehiago aurkeztuz gero, kanpoan utziko dira.

17.2 Zozketa egin ondoren, ateratzen den zenbakitik aurrera esleituko dira aukera daitezkeen baimenen eguna eta ordua.

17.3 Eskaria nolakoa den eta zenbat baimen dauden banatzeko kontuan harturik, zozketan saridun izan denak baimen bat edo gehiago aukeratu ahal izango ditu.

17.4 Baimena pertsonala eta besterenezina da.

17.5 Baldin eta baimenak eman ondoren (zozketan jarritako hurrenkeraren arabera) baimenik libre geratzen bada, salgai jarriko dira Arabako Foru Aldundiko Ehiza eta Arrantza Atalaren bulegoetan (Probintzia plaza 5, beheko solairua), bidezkotzat jotzen diren mugekin. Libre geratutako baimenak arrantza jardueran aritzeko gaitutako edozein pertsonaren eskura egongo dira, zozketan parte hartu izan ala ez.

18. ARTIKULUA.- AMUARRAIN ARRUNTAREN HARRAPAKETEN PARTEAK.

18.1 Esparruetan harrapatutako amuarrain arrunten datuak uretatik atera eta berehala idatzi beharko dira baimenarekin batera emandako harrapaketa orrian. Orri horretan ageri den harrapatutako arrainen kopurua otzaran, zakuan edo delakoan gordetako arrainen kopurua izan behar da beti.

18.2 Harrapaketen parteak nahitaez bidali behar dira baimena erabiltzen hasten den egunetik 10 eguneko epean gehienez ere, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzura edo Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. Posta ziurtatuz edo aurkeztu direla ziurtatzen duen beste edozein modutan ere aurkeztu ahal izango dira parte horiek.

18.3 Nahitaez bidali edo eman behar dira harrapaketen parteak, nahiz eta arrantza baimena ez erabili edo ezer ez harrapatu.

18.4 Harrapaketen parteak entregatzea ezinbestekoa da hurrengo denboraldiko zozketetan parte hartu ahal izateko.

19. ARTIKULUA.- KARRAMARROA KONTROLATZEA ETA DESAGERRARAZTEA.

Euskal Autonomia Erkidegoan ibai arrantza legez egiteko eskatzen den dokumentazioa duen edonork seinaleadun karramarroa eta karramarro gorria kontrolatzeko jarduketak egin ahal izango ditu ezarritako ordutegian, III. eranskinean agertzen diren tarte eta egunetan, modalitate horretan aritzeko baimenik behar izan gabe.

20. ARTIKULUA.- ONTZITIK ARRANTZAN EGITEA.

20.1 Ontzitik arrantzan egin daiteke edozein modalitatetan, kasuan kasuko konfederazio hidrografikoak nabigaziorako eta flotaziorako emandako baimena edukiz gero.

20.2 Ontziak izango dira konfederazio hidrografiko eskudunak holakotzat jotzen dituenak, hauek eskatuta: erantzukizunpeko adierazpena, matrikula eta nabigaziorako eta flotaziorako baimen ofiziala.

20.3 Norbait ur bazterretik ari bada arrantzan, ezin izango da ontzitik arrantzan egin hura dagoen lekutik 50 metroko ingurua hartzen duen ibai tarteetan. Urtegiatan, ezin izango da ontzitik arrantzan egin berrogeita hamar metroko zerrendan, ur bazterretik urtegiaren erdirantz neurtuta.

20.4 Ur bazterretik arrantzan egitea debekatuta dagoen zonetan debekatuta dago ontzitik arrantzan egitea ibai tarteetan, eta urtegiatan 100 metro zabaleko zerrenda batean, debekatutako ur ertzetik urtegiaren erdialderantz neurtuta.

21. ARTIKULUA.- UR GEZAKO NAIADE TXIRLA (Potomida littoralis) KONTSERBATZEAREKIN LOTUTAKO BERARIAZKO NEURRIAK.

Baia ibaia da naiadearen populazio handia, egonkorra eta ongi egituratua duen Arabako ibai bakarra. Molusku bibalbo hori Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan jasota dago, “kaltebera” gisa (2013ko ekainaren 18ko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena; 2013ko uztailearen 5eko EHAA, 128. zk.). Baia ibaia KBE (ES2110006) Natura 2000 Sareko eremu babestuan ere “funtsezko elementutzat” jotzen da (34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa).

Kirol arrantza eta espezie horren kontserbazioa bateragarriak izan daitezten, debekatuta dago ibai ohea zeharkatzea eta zapaltzea Zuia/Urkabustaiz barrutian arrantzatzen den bitartean; hain zuzen ere, Abornikanoko presa txikiaren eta A-3314 errepideko Andarako sARBIDEKO gurutzaguneko zubiaren artean dagoen tartean. Ibaia tarte horretan, amuarrainei ateratzean zein atzera uretara botatzean ahalik eta kalterik txikiena egiteko, ibilguan sartu ahal izango da, horretarako zabalera nahikoa badago eta ibilguaren erdialdea zapaldu gabe.

22. ARTIKULUA.- ZEBRA MUSKUILUAREKIN (Dreissena polymorpha) LOTURIKO BERARIAZKO NEURRIAK.

22.1 Ikusi da badaudela zebra muskuiluak Urbarri Ganboa, Urrunaga eta Sobrongo urtegieta eta Ebro, Santa Engrazia, Undebe eta Zadorra ibaietan, eta gehiago zabaldu ez dadin, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2002ko irailaren 24an emandako ebazpenean zehaztutakoari (EAO, 2002ko azaroaren 12a, 271. zenbakia) eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2007ko maiatzaren 15ean emandako ebazpenean zehaztutakoari jarraituko zaio (EAO, 2007ko ekainaren 19a, 146. zenbakia), arrantzan erabilitako tresnak desinfektatu eta lehortzerakoan batez ere.

Eginbehar horiek betetzen ez badira, horretarako arrazoirik izan gabe, dagokion zehapen espedientea hasiko da.

22.2 Ur masen artean zebra muskuiluen larbak transmititzea saihesteko, ur kontinental guztietako arrantzak honako prebentzio muga hauek ditu:

- a) Ibaietan eta urtegieta arrainak arrantzatze eta karramarroak kontrolatzeko eta desagerrarazteko tartetan karramarroak kontrolatzeko erabiltzen diren lanabes batzuk (sare saskiak) eta bitarteko osagarrietako batzuk (botak, ibi ekipoak, ateragailuak, etab.) arrisku handiko elementuak direnez zebra muskuiluaren hedapenean, arrantzaleak horiek guztiak ondo desinfektatzeaz arduratu beharko dira.
- b) Desinfekzioa arrantza jarduna hasi aurretik egin beharko da, eta, ondoren, tokian bertan, arrantza jarduna bukatutakoan, eta dosifikagailu/lainoztagailu bat erabili beharko da, zeinetan honako proportzio hauek dituen soluzio bat sartu beharko baita: 1,25 ml lixiba 10 litro ur bakoitzeko. Edonola ere, dosifikagailu/lainoztagailua eskura eta erabiltzeko moduan egon beharko da arrantzaleak arrantza edo kontrol jarduna egin bitartean.
- c) Neurri osagarri gisa, karramarro seinaleduna kontrolatu eta ezabatzeko tartean erabilitako sare saskiak eta elementu lagungarriak gutxienez astebetetz lehortzea gomendatzen da, zebra muskuilurik ez dagoen eremuetan berriz erabili aurretik.
- d) Gomendatzen da feltro zolak ez erabiltzea ibarbideetan; izan ere, larba exotiko inbaditzaileen espezieak, hala nola zebra muskuilua, zolari lotuta geratzea errazten du, eta, beraz, errazago transmititzen dira.

23. ARTIKULUA.- DESGAITASUNA DUTENENTZAKO LEHENTASUNEZKO ARRANTZA LEKUAK

Desgaitasuna dutenentzako lehentasunezko arrantza leku hauek ezartzen dira:

- a) Urrunagako urtegiko zubi handia izenekoa, N-240 errepidean dagoena, A-623 errepidearekiko elkargunearen parean.
- b) Uribarriko urtegiko ponpaketa estazioaren eremua.

24. ARTIKULUA.- UNEAN UNEKO NEURRIAK.

Klimarekin, biologiarekin edo beste edozerekin loturiko gorabeherak direla-eta uretako faunan gerta litezkeen kalteak prebenitzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak beretzat gordetzen du foru agindu honetan araututako edozein puntu aldatu edo garatzeko ahalmena, baita normalizatzeko egokiesten diren beste batzuk ere.

25. ARTIKULUA.- ARAU HAUSTEAK.

Ibai arrantzaren arloan edozein arau hautsiz gero, aplikatuko dira bai Ibai Arrantzaren 1942ko apirilaren 20ko Legea, bai apirilaren 13ko 1/1989 Legea, ehiza eta ibaietako arrantza arloko zenbait arau hauste administratiboren kalifikazioa aldatu eta dagozkien zehapenak handitzen dituenak.

I. ERANSKINA

ARRANTZA BAIMENDUKO TARTEAK ARRO HIDROLOGIKOEN (AH) ARABERA

Tarteak AFaren web orrian bistaratu daitezke: <https://geo.araba.eus/geobisorea/>

1. OMECILLO IBAIAREN ARRO HIDROLOGIKOA.

1.1 AMUARRAINAREN ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

1.2 AMUARRAINAREN HERIOTZARIK GABEKO ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

1.3 SEINALEDUN KARRAMARROA KONTROLATU ETA DESAGERRARAZTEKO TARTEA:

- Omeçillo ibaia: Uribarri Gaubeako zubitik A-2625 errepedeko zubiraino (Espejo).
- Tumecillo ibaia: Carancako errotako zubitik Omeçillo ibaiarekin bat egiten duen tokiraino, Villanañetik uretan behera.

1.4 SALMONIDOEN ARRANTZARAKO TARTE LIBREA:

- Tumecillo ibaia: Angostoko santutegiko presatik Omeçillo ibaiarekiko elkarguneraino.

1.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREA:

- Omeçillo ibaia: A-2625 errepedeko zubitik (Bergonda herria baino gorago) Ebro ibaiarekin bat egiten duen tokiraino.

1.6 SALMONIDOEN KIROL AGERTOKIA

- Omeçillo ibaia: Gurendes herriaren kanpoaldeko zubitik (koordenatuak: ETRS89 30N 489938/4743799) ibaian gora Espejoko igerileku naturalak dauden zelaigunean dagoen bihurtuneraino (koordenatuak: ETRS89 30N 495757/4739924) eta A-4327 errepedeko zubitik (koordenatuak: ETRS89 30N 495908/4739678) A-2625 errepedeko zubiraino, Espejoko araztegia baino beherago (koordenatuak: ETRS89 30N 496593/4738112), foru agindu honen 13.1 puntuan zehazten diren jardueretako bat programatuta dagoenean.

1.7 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA EZABATZEKO IBAI TARTEA:

- Omeçillo ibaia: perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) A-2625 errepedeko zubitik (Bergonda herria baino gorago) Ebro ibaiarekin bat egiten duen tokirainoko tartean bakarrik harrapatu daiteke.

2. BAIA IBAIAREN ARRO HIDROLOGIKOA.

2.1 AMUARRAINAREN ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

2.2 AMUARRAINAK HIL GABE ARRANTZATZEKO BARRUTIAK:

- Baia ibaia: Katadioko zubitik Aprikanoko zubiraino.
- Baia ibaia: Bitoriano eta Gillerna arteko zubitik A-3314 errepedeko zubiraino (Andagoia herrira heltzeko bidegurutzea).

2.3 SEINALEDUN KARRAMARROA KONTROLATU ETA DESAGERRARAZTEKO TARTEA:

- Baia ibaia: Katadioko zubitik Rivabellosako zubiraino.

2.4 SALMONIDOEN ARRANTZARAKO TARTE LIBREA:

- Baia ibaia: Aprikanoko zubitik Igai herritik San Migel herrira sartzeko zubiraino.

2.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREA:

- Baia ibaia: Igai herritik San Migel herrira sartzeko zubitik Burgos probintziarekiko mugaraino.

2.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA EZABATZEKO TARTEA:

- Baia ibaia: perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) Igai herritik San Migel herrira sartzeko zubitik Burgos probintziarekiko mugaraino soilik arrantzatu ahal izango da.

3. ZADORRA IBAIAREN ARRO HIDROLOGIKOA.

3.1 AMUARRAINAREN ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

3.2 AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO BARRUTIA:

- Zadorra ibaia (Dura): Uribarri Ganboako urtegiko presako koltxoiaren beheko mugatik Gamarrako zubiraino (N-240). Ez dago baimenduta presako koltxoiaren egituratik bertatik arrantzan egitea.

3.3 SEINALEDUN KARRAMARROA KONTROLATU ETA DESAGERRARAZTEKO TARTEA:

- Zadorra ibaia: Uribarri Ganboako urtegiko presaren lastairatik Ihurreko zubiraino.

3.4 KARRAMARRO GORRIA KONTROLATU ETA DESAGERRARAZTEKO TARTEA:

- Albinako urtegia: perimetro osoa.

3.5 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREAK:

- Zadorra ibaia: Gamarrako zubitik (N-240) Aztegiatako zubiraino.
- Undabe ibaia: Arabako sarreratik, Ubidetik uretan behera, Urrunagako urtegiara isurtzen den tokiraino.
- Barrundia ibaia: Aiduru edo Ugarte errekarekiko elkargunetik (Barriatik uretan gora) Zadorra ibaiarekin bat egiten duen tokiraino.
- Albina ibaia: Albinako urtegiko presatik Urrunagako urtegiara isurtzen den tokiraino.
- Ihuda ibaia: lurzati bideko zubitik, Urarte herrian, Burgosko probintziaren mugaraino (Trebiñuko Konderria) eta Trebiñuko Konderriaren irteeratik Zadorra ibaiarekin bat egiten duen tokiraino.
- Zubialde-Zalla ibaia: A-3608 errepideko zubitik (Larrinoan) Zadorrarekin bat egiten duen tokiraino.

3.6 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREAK:

- Albinako urtegia: perimetro osoa.
- Uribarri Ganboako urtegia: perimetro osoa, Urizarko iparraldeko edo kanpoko dikea izenekoaren alde biak barne, ondoko sektore hauek izan ezik, haietan arrantza debekatuta egongo baita:
 - Landako bainu-eremuak eta Uribarri Ganboako hilerriko hondartza.
 - Oreningo uhartearen perimetro osoa.
 - Erlojuaren orratzen kontrako norabidean, urtegiaren hegoaldeko senadia eta Urizar baserritik ur gaineko pasabidearen bukaerako muturrerainoko (Garaioako probintzia parkearen beste aldean) ur bazter guztia barnean hartzen dituen tartea, aipatutako pasabidearen luzera osoa barne
 - Aldaieta klub nautikoa: mendebaldetik ekialderako norabidean, hau guztia barnean hartzen duen ur bazterreko tartea: ontziak atrakatzeko zementuzko arrapalaren senaditik (UTM ETRS89 30N koordenatuak: 533229/ 4752532) klub horretako ur gaineko pantalanaren aurrean dagoen senadiaren bukaeraraino (UTM ETRS89 30N koordenatuak: 533601.4752703).
- Urrunagako urtegia: perimetro osoa.
- Dulantzi ibaia: Oreitia herriko zubitik Zadorra ibaiarekiko elkarguneraino.
- San Pedro erreka: Ollerieta-Gopegi A-3608 errepideko zubitik Urrunagako urtegian isurtzen den tokiraino.
- Santa Engrazia ibaia: Urrunagako urtegitik Amarita herrira Erretanatik sartzeko errepideko zubiraino.
- Zadorra ibaia:
 - A-3016 errepideko zubitik (Agurainetik Erdoñara) Uribarri Ganboako urtegian isurtzen den tokiraino.
 - Aztegietako zubitik “Los Cañales” izeneko oinezkoentzako pasabidearen aurrietaraino.
 - Sorribasko presatik Ebro ibaiarekin bat egiten duen tokiraino, Arabatik pasatzen den ibilgu osoan zehar.

3.7 ZIPRINIDOEN KIROL AGERTOKIA.

- Zadorra ibaia: “Los Cañales” izeneko oinezkoentzako pasabidearen aurrietatik Sorribasko presaraino, foru agindu honen 13.1 puntuan zehazten diren jardueretako bat programatuta dagoenean.

3.8 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA EZABATZEKO TARTEA:

- Albina, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegiak: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*), karpa (*Cyprinus carpio*) eta perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daitezke haien perimetro guztietan, Uribarri Ganboako urtegiako tarte debekatueta izan ezik.
- Dulantzi ibaia: alburnoa (*Alburnus alburnus*) eta lutxoa (*Esox lucius*) arrantzatu ahal izango dira Oreitiako zubitik Zadorra ibaiarekiko elkarguneraino.

- Zadorra ibaia: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxo (Esox lucius), perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) eta amuarrain ostadarra (*Oncorhynchus mykiss*) arrantzatuta daitezke Uribarri Ganboako presako koltxoitik Ebro ibaiarekin bat egiten duen tokiraino bakarrik.

Hala ere, Duranako arrantza esparruaren barruan dagoen ibai tartean -Uribarri Ganboako presako koltxoitik N-240 errepideko Gamarra Nagusiko zubiraino- eremu horretarako baimena dutenek bakarrik egin dezakete arrantzan.

4. ARAKIL ARRO HIDROLOGIKOA.

4.1 AMUARRAINAREN ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

4.2 AMUARRAINAREN HERIOTZARIK GABEKO ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

4.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DESAGERRARAZTEKO TARTEAK: AH honetan ez dago.

4.4 SALMONIDOEN ARRANTZARAKO TARTE LIBREA:

- Araia edo Zirauntza ibaia: Iduiako auzoko zubitik Leze errekaen elkarguneraino.

4.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREA: AH honetan ez dago.

4.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATZEKO ETA EZABATZEKO TARTEA: AH honetan ez dago.

5. INGLARES IBAIAREN ARRO HIDROLOGIKOA.

5.1. AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO BARRUTIA:

- Inglares ibaia (Berganzo): Berganzoko zubitik Ebro ibaiarekiko elkarguneraino.

5.2 AMUARRAINAREN HERIOTZARIK GABEKO ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

5.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA EZABATZEKO TARTEA: AH honetan ez dago.

5.4 SALMONIDOEN ARRANTZARAKO TARTE LIBREA:

Inglares ibaia: A-2124 eskualde errepideko zubitik (UTM ETRS89 30N koordenatuak: 523530/4721631), Urizarreko hirigunearen kanpoaldean, ur jauziraino (UTM ETRS89 30N koordenatuak: 520440/4721740). Inglares ibaiko ur jauzitik (UTM ETRS89 30N koordenatuak: 520440/4721740) Berganzoko zubirainoko tartean (UTM ETRS89 30N koordenatuak: 517803/4721910) ezin da egin arrantzan.

5.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREA: AH honetan ez dago.

5.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATZEKO ETA EZABATZEKO TARTEA: AH honetan ez dago.

6. EGA IBAIAREN ARRO HIDROLOGIKOA.

6.1 AMUARRAINAREN ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

6.2 AMUARRAINAK HERIOTZA GABE ARRANTZATZEKO BARRUTIA:

- Ega/Berron ibaiak (Antoñana-Kanpezu): Sabando erreka isurtzen den tokitik Santikurutze Kanpezuko herrira sartzeko zubiraino (A-132 errepideak eta Oteo eta Haranerantz doan A-2128 errepideak bat egiten duten tokian).

6.3 SEINALEDUN KARRAMARROA KONTROLATU ETA EZABATZEKO TARTEA:

- Berron ibaia: A-132 errepideko zubitik, Atauritik uretan behera (Asfaltos Maeztu), Ega ibaiarekin bat egiten duen tokiraino.
- Ega ibaia: Berrón ibaia isurtzen den tokitik Intaraino (ibaiaren ezkerreko ertza Nafarroan dago) (UTM ETRS89 30N koordenatuak: 556953/4724384).

6.4 SALMONIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREAK:

- Berron ibaia: A-132 errepideko zubitik, Birgaragoien, errepide horretako zubiraino, Maeztuko igerilekuetatik uretan behera.
 - Atauriko presatik "Puentelaya" izeneko parajeraino.
 - Antoñanako errotako presatik Sabando ibaiarekin bat egiten duen tokiraino.
- Ega ibaia: Nafarroako Foru Erkidegoan ibili ondoren Araban sartzten denetik Berron ibaia isurtzen den tokiraino.
 - Antoñana-Kanpezuko barrutiaren bukaeratik (Santikurutze Kanpezura sartzeko zubia, A-132 errepideak eta Oteo eta Haranerantz doan A-2128 errepideak bat egiten duten tokian dagoena) Inta dermioraino, hau da, ibaiaren ezkerreko bazterra Nafarroan sartzten den lekuraino (UTM ETRS89 30N koordenatuak: 556953/4724384).
 - Izki ibaia: Izkiko parke naturalaren mugatik gutxi gorabehera 250 metrora dagoen ibai gaineko zubitik (UTM ETRS89 30N koordenatuak: 548168 / 4725442) Berron ibaira isurtzen den lekuraino.
 - Musitu ibaia: Zekuianoko errotatik Berron ibaiaren ahoraino.

6.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREA: AH honetan ez dago.

6.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA EZABATZEKO TARTEA:

- Ega ibaia: amuarrain ostadarra (*Oncorhynchus mykiss*) arrantzatu daiteke Antoñana-Kanpezuko esparruaren bukaeratik (Santikurutze Kanpezuko herrira sartzeko zubia, A-132 errepideak eta Oteo eta Haranerantz doan A-2128 errepideak bat egiten duten tokian dagoena) Inta dermioraino, hau da, ibaiaren ezkerreko bazterra Nafarroan sartzten den lekuraino (UTM ETRS89 30N koordenatuak: 556953/4724384).

7. NERBIOI-IBAIZABAL IBAIAREN ARRO HIDROLOGIKOA.

7.1 AMUARRAINAREN ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

7.2 AMUARRAINAREN HERIOTZARIK GABEKO ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

7.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DESAGERRARAZTEKO TARTEA: AH honetan ez dago.

7.4 SALMONIDOEN ARRANTZARAKO TARTE LIBREA:

- Altube ibaia: A-2522 errepideko zubitik (Urkillo dermioan) Bizkaiarekiko mugaraino.

7.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREAK:

- Maroñoko urtegia: perimetro osoa.
- Olarteko urtegia: perimetro osoa.
- Altube ibaia: Laudioko udalerriko ezkerreko ertzean, Araban sartzen denetik, Aranguti errekararekin bat egiten duen lekuan (UTM ETRS89 30N koordinatuak: 505195/4776044), Nerbioi ibaira isurtzen den arte (UTM ETRS89 30N koordinatuak: 504891/4777028). Ez dago Georaban
- Izoria ibaia: Maroñoko urtegiako irteeratik Nerbioi ibaiarekin bat egiten duen tokiraino.
- Nerbioi ibaia: Araban duen sarreratik, Saratxotik uretan gora, Bizkaiarekiko mugaraino.

7.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA EZABATZEKO IBAI TARTEA:

- Maroñoko urtegia: perimetro osoan arrantzatu daitezke lutxoak (Esox lucius) eta perka amerikarra (Micropterus salmoides).

8. CADAGUA-IBAIZABAL IBAIAREN ARRO HIDROLOGIKOA.

8.1 AMUARRAINAREN ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

8.2 AMUARRAINAREN HERIOTZARIK GABEKO ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

8.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA EZABATZEKO TARTEA: AH honetan ez dago.

8.4 SALMONIDOEN ARRANTZARAKO TARTE LIBREA:

- Lanteno edo Ibaizabal ibaia: A-624 errepideko zubitik Bizkaiarekiko mugaraino.

8.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREAK:

- Artziniega ibaia: Aiaga edo Soxo erreka isurtzen den tokitik Bizkaiarekiko mugaraino.
- Okondo edo Itzalde ibaia: A-624 errepideko zubitik Bizkaiarekiko mugaraino.

8.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATZEKO ETA EZABATZEKO TARTEA: AH honetan ez dago.

9. DEBA ARRO HIDROLOGIKOA.

9.1 AMUARRAINAREN ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

9.2 AMUARRAINAREN HERIOTZARIK GABEKO ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

9.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA EZABATZEKO TARTEA: AH honetan ez dago.

9.4 SALMONIDOEN ARRANTZARAKO TARTE LIBREA:

- Aramaio ibaia: Kuku presatik Gipuzkoako probintzia mugaraino.

9.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREAK: AH honetan ez dago.

9.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATZEKO ETA EZABATZEKO TARTEA: AH honetan ez dago.

10.EBRO IBAIAREN ARRO HIDROLOGIKOA.

10.1 AMUARRAINAREN ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

10.2 AMUARRAINAREN HERIOTZARIK GABEKO ARRANTZA BARRUTIA: AH honetan ez dago.

10.3 KARRAMARROAK KONTROLATU ETA EZABATZEKO TARTEA: AH honetan ez dago.

10.4 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREA: AH honetan ez dago.

10.5 ZIPRINIDOAK ARRANTZATZEKO TARTE LIBREAK:

- Sobrongo urtegia: Araban duen perimetro osoan.
- Ebro ibaia: Araban egiten duen ibilbide osoan.

10.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA EZABATZEKO TARTEA:

- Sobrongo urtegia: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*) eta perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daitezke Araban duen perimetro osoan.

Ebro ibaia: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*) eta perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daitezke Araban egiten duen ibilbide osoan.

II. ERANSKINA
AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA

1.-AMUARRAINAK ARRANTZATZEKO BARRUTIAK

IZENA	IBAIA	GOIKO MUGA	BEHEKO MUGA	LUZERA (KM)	BAIMENAK/ EGUNA	ALDI BALIODUNA	EGUN BALIODUNAK	BEITAK	KUPOA
Berganzo	Inglares	Berganzoko zubia	Ebro ibaiarekiko elkargunea	8,0	4	2026-03-14 - 2026-06-30	AR., OG., LR., IG., JAI	Anu bakarra eta garrangarik ez duten artifizialak	2

2.-AMUARRAINAREN HERIOTZARIK GABEKO ARRANTZA BARRUTIA

IZENA	IBAIA	GOIKO MUGA	BEHEKO MUGA	LUZERA (KM)	BAIMENAK/ EGUNA	ALDI BALIODUNA	EGUN BALIODUNAK	BEITAK	KUPOA
Durana	Zadorra	Uribarri Ganboa presako koltxoia	Gamarrako zubia (N-240)	8,2	4	2026-03-14 - 2026-07-31	AR., OG., OS., IG., JAI		
Antoñana- Kanpezu	Ega	Sabando erreka isurtzen den tokia	Santikurutze Kanpezura sartzeko zubia (A-132 eta A-2128 errepideen elkargunea)	6,0	3	2026-03-14 - 2026-06-30	AL., AZ., OS., LR., IG., JAI	Anu bakarra eta garrangarik ez duten artifizialak	0
Kuartango	Baia	Katadioko zubia	Aprikanoko presa	11,6	5				
Zuia/Urkabustiaiz	Baia	Bitorianotik Gillermarako bideko zubia	A-3314 errepideko zubia (Andagoirako sarbideko bidegurutzea)	8,8	4	2026-03-14 - 2026-06-07	ASTEKO EGUN GUZTIETAN		

III. ERANSKINA

SEINALEDUN KARRAMARROA ETA KARRAMARRO GORRIA KONTROLATU ETA EZABATZEKO TARTEAK

ESPEZIEA	IBAIA/ URTEGIA	GOIKO MUGA	BEHEKO MUGA	LUZERA (KM)	KONTROL ALDIA	KONTROL EGUNAK
Karramarro seinaleduna	Omecillo / Tumecillo	Carancako erroiako zubia (Tumecillo) eta Urribari Gaubeako zubia (Omecillo)	A-2625 errepideko zubia (Espejo)	13,7	2026-07-01 - 2026-09-30	ASTEKO EGUN GUZTIETAN
	Baia	Marubai zubia Katadion	Rivabellosako zubia	25,3		
	Berron eta Ega	A-132 errepideko zubia, Atauritik uretari behera (Asfalto de Maeztu)	Nafarroako muga	14,0		
	Zadorra	Urribari Ganboa presako koltxoia	Ihurreko zubia	11,3		
Karramarro gorria	Albina	Perimetro osoa		8,7		